

Kontratu aurreko informazioa: aginduak betetzeko zerbitzuak, zaindu eta administratzekoak eta bezeroen kontura kriptoahtiboak transferitzekoak

Dokumentu hau ez da kontratu bat, eta, beraz, ez du inolako betebeharrak edo eskubiderik sortzen. Dokumentu honen helburu bakarra da ulertzen laguntzea zer diren eta nola funtzionatzeko duten aginduak gauzatzeko, zaindu eta administratzeko eta bezeroen kontura kriptoahtiboak transferitzeko zerbitzuak (aurrerantzean, **“Kriptoahtiboen Zerbitzuak”**).

Arretaz irakurri eta sinatu behar du, Bankuak entregatu diola eta kontratatu aurretik Kriptoahtiboen Zerbitzuei buruzko informazioa eman diola jasota gera dadin.

Kriptoahtiboen Zerbitzuak ematen dituen Erakundea

Kriptoahtiboen zerbitzuen emailea: Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. (“Bankua edo BBVA”) Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago (IFK: A48265169), eta egoitza soziala Bilboko San Nikolas plazako 4.ean du.

Erakunde ikuskatzaileak: BBVA kreditu-erakunde gisa dago inskribatuta Espainiako Bankuko Erakundearen Erregistroan, 0182 zenbakiarekin, eta Kriptoahtiboen Zerbitzuak emateko gaituta dago, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratuta (calle Edison, 4, Madril - www.cnmv.es).

Nola komunikatuko gara zurekin? BBVAren eta zure arteko komunikazioak eta informazio-bidalketak kontratua sinatzen den hizkuntza berean egingo dira, eta, arauak hala ezartzen duenean, euskarri iraunkorrean, eta segurtasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatuta daukan edozein bitartekoren bidez. Bankuak une oro gaitutako edozein kanalen bidez eman ahal izango ditugu komunikazioak, hau da, bitarteko elektronikoen bidez edo Internet bidezko banku-kanalaren bidez. Hori dela eta, baliozko helbide elektronikoa bat izan beharko du, eta BBVAk helbidetzat hartuko du jakinarazpenetarako.

Interes-gatazkak: BBVA gardena da bere interes-gatazkekin, eta interes-gatazka horiek bere politikan arautzen dira. Politika horren laburpen bat duzu www.bbva.es webgunean.

Azkenik, gatazka jakin bat kudeatzeko hartutako neurriak ez badira nahikoa, arrazoizko ziurtasunez, arriskuak aurreikusi egingo direla bermatzeko, BBVAk gatazkaren izaera edo jatorria jakinaraziko dizu zeure kabuz jardun aurretik, ematen zaizkizun Kriptoaktiboen Zerbitzuei buruz egokien deritzozun erabakia hartu ahal izan dezazun.

Kriptoaktiboak zaintzea: Bezeroen konturako kriptoaktiboak zaintzeko politikaren arabera, BBVAk neurriak aplikatzen ditu gure bezeroen kriptoaktiboak eta Bankuarenak behar bezala bereizten direla ziurtatzeko. Gainera, Bankuak kriptoaktiboen eta haien titularren zehaztasuna eta elkarrekikotasuna ziurtatzen duten erregistroak ditu, bai eta bezeroen kriptoaktiboak babesteko bestelako antolamendu-neurri egokiak ere.

Horrez gain, kriptoaktiboak zaintzeari dagokionez, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- **Omnibus erregistro banatuko helbideak erabiltzea:** BBVAk ez du sortuko bezeroka banatutako erregistro-helbiderik bere kriptoaktiboak zaintzeko, baizik eta Bankuaren titulartasuneko omnibus erregistro banatuko helbideetan gordeko ditu, betiere BBVAren kriptoaktibo propioak dauden erregistro banatuko helbideetatik bereizita. Bankuak posizio-erregistro bat izango du, eta bertan jasoko dira omnibus erregistro banatuko helbidean parte hartzen duen bezero bakoitzaren nortasuna eta posizioak, banaka eta zalantzarik gabe. BBVA gako kriptografiko pribatuen titularra denez, bezeroek ez dute sarbiderik izango bezeroen kriptoaktiboak kontrolatzen eta zaintzen dituzten erregistro banatuko helbideen gako pribatuetara.
- **Kriptoaktiboak erabiltzea:** BBVAk ez ditu kriptoaktiboak bere kabuz erabiliko, betiere euren bezeroarenak badira.

Kriptoaktiboen Zerbitzuekin lotutako kriptoaktiboak eta bezeroen funtsak ez daude Gordailuak Bermatzeko Funtsaren eta Inbertsioak Bermatzeko Funtsaren babespean.

Kriptoaktiboen zer zerbitzu ematen dira?

Kriptoaktiboen zerbitzuen deskribapena

- **Kriptoaktiboen aginduak gauzatzea bezeroen kontura:** Zerbitzu honen bidez, bezero batek kriptoaktibo bat edo batzuk erosteko edo saltzeko agindua jasotzen du, edo kriptoaktibo bat edo batzuk harpidetzeko agindua, eta agindu hori hirugarren bati helarazten zaio, dagokion gauzatzea egin dezan.
- **Kriptoaktiboak zaindu eta administratzea bezeroen kontura:** Zerbitzu honen bidez, kriptoaktiboak bezeroaren kontura gordetzen eta kontrolatzen dira omnibus erregistro-helbideetan, BBVAren jabetzakoak diren eta haiek kontrolatzen dituzten gako kriptografiko pribatuen bidez, erregistro banatuko helbide horiek kontrolatzen baitituzte. Bezeroek BBVAren bidez eskuratutako kriptoaktiboak ez dira bezero bakoitzarentzako erregistro banatuko helbideetan gordetzen, eta

BBVA da bezeroen kriptoahtiboak eskuratzeko bitarteko horien titular bakarra eta eskusiboa.

- **Bezereoek kontura kriptoahtiboak transferitzea:** zerbitzu hori banatutako erregistro-helbide batetik beste batera kriptoahtiboak transferitzean datza. Honako transferentzia-modalitate hauek bakarrik egin ahal izango dira:

1. Eskatuz gero, eta Bankuak zerbitzu hori eskatzeko emandako jarraibideei jarraituz, BBVAk zaintzapeko bere kriptoahtiboak osorik edo partzialki itzuliko dizkio Europar Batasuneko kriptoahtiboen beste zerbitzu batean eta behar bezala baimenduta dagoenean bere titulartasunetik kanpoko erregistro-helbide batera. Ezinezkoa da kriptoahtiboak hirugarrenei transferitzea, ez eta ordaintzeko bitarteko gisa erabiltzea ere.
2. Oinordekoek eskatuta, testamentu-espedienteak izapidetu ondoren.
3. Agintaritzak judizialen batek enbargoak jakinaraztearen ondorioz edo organo jurisdikzional edo administratibo batek egindako beste edozein errekerimenduren ondorioz, baldin eta kriptoahtiboak itzultzea eskatzen badu. Ezin izango dituzu saldu edo eskatu bahitutako kriptoahtiboak itzultzeko, eta BBVAk transferitu ahal izango ditu, dagokion organoaren argibideei jarraituz.
4. Legezko betebehark bat, epai judizial bat edo administrazio-agindu bat betetzeko eskatutako transferentziak.

Beste produktu edo zerbitzu batzuk kontratatatzeko beharra

Kriptoahtiboen Zerbitzuak eman ahal izateko, beharrezkoa da BBVArekin kontu korronte bat kontratatua edukitzea eurotan, eta kontu horretan egingo dira Kriptoahtiboen Zerbitzuetatik eratorritako kobrantzak eta ordainketak.

Gainera, Kriptoahtiboen Zerbitzuak Erakundearen kanal digitalen bidez ematen direnez, kanal anitzeko kontratu bat eduki behar da, zuretzat inolako kosturik ez duena, eta BBVAren mugikorretarako aplikaziorako sarbidea izan behar da.

Kriptoahtiboak Gauzatzeko Politikari buruzko informazioa

BBVAk, Kriptoahtiboen Zerbitzuak emateko Kontratuarekin batera, Kriptoahtiboak Gauzatzeko Politika ("**Gauzatze Politika**"), emango dizu. Politika horrek hau jasotzen du:

- BBVAk bezeroen erosketa- edo salmenta-aginduak onartzen dituen kriptoahtiboak, gauzatzeko.

- Gauzatze-zentroen zerrenda, hau da, kriptoahtiboen gainean zerbitzuak ematen dituzten beste erakunde batzuk, hala nola negozioazio-plataformak, zeinetan BBVAk konfiantza osoa baitu, oro har, bezeroek emandako aginduak ahalik eta ondoen gauzatzeko.
- BBVAk aginduak gauzatzeari eragiten dioten faktoreei ematen dien garrantzi erlatiboa, bezeroen kriptoahtiboak erosteko edo saltzeko aginduak gauzatzeari.
- Kriptoahtiboak erosteko edo saltzeko agindu bat gauzatzeko gauzatze-zentro jakin bat hautatzeko erabilitako irizpideak eta faktoreak, hala badagokio.
- BBVAk bere bezeroentzat ahalik eta emaitzarik onenak lortu direla kontrolatzeko eta egiaztatzeke duen modua, izan ditzakeen gastu guztiak.
- Izan ditzakeen gastu guztiak.

Gauzatze Politika eguneratua eskura duzu www.bbva.es webgunean

Kriptoahtiboen zerbitzuak emateko erabiltzen diren kriptoahtiboen tipologia

Kriptoahtiboen Zerbitzuaren bidez, kriptoahtiboen merkatuei (MICA) buruzko 2023 /1114 (EB) Erregelamenduaren esparruan dauden eta BBVAk une bakoitzean identifikatzen dituen kriptoahtiboak erabili ahal izango dituzu.

Kriptoahtiboei lotutako arriskuak

I. eranskin gisa erantsi da kriptoahtiboei buruzko inbertsioei lotutako arriskuei buruzko informazio-dokumentua. Garrantzitsua da inbertsio honen arriskuak irakurtzea eta ulertzea; I. eranskinean azaltzen dira zehatz-mehatz.

Zein dira urteko kostuak?

Kriptoahtiboen zerbitzuen komisioak

Komisio hauek aplikatuko ditu BBVAk:

- Aginduak gauzatzeko zerbitzuaren truke, % 1,49 (eskudiruari dagokionez).
- Kriptoahtiboak zaindu eta administratzeko zerbitzuaren truke, % 0, kriptoahtiboen kontuko saldo baliokideari dagokionez (eurotan).
- Kriptoahtiboak transferitzeagatik zerbitzuaren truke, %4, transferentziaren zenbateko baliokideari dagokionez (eurotan).

www.bbva.es helbidean dituzu BBVAk kriptoahtiboen zerbitzuak emateagatik dituen kostuak eta komisioak.

Nolanahi ere, berariazko agindu bat izapidetzen duzunean, zure aginduaren kostu zehatzen berri emango zaizu (haren baldintzetara egokitutakoen berri). Kostu gehigarriak egon daitezkeen kasuetan, edozein eragiketa egin aurretik zehaztuko dizkizugu.

Kostu horiez gain, Kriptoahtiboen Zerbitzuak emateaz kanpoko beste kostu batzuk sor daitezke Bezeroarentzat, dokumentu honetan jaso ez diren eta BBVAren bidez ordaintzen ez diren zergak barne.

Muga operatibo aplikagarriak

- Erosketa- eta/edo salmenta-agindu baten gutxieneko zenbatekoa 10 eurokoa da.
- Kriptoahtiboetan izan behar duzun gutxieneko saldoak, saldu ahal izateko, gutxienez 10 euroko edo gehiagoko balorazioa izan behar du. Balorazio hori 10 eurotik beherakoa baina 5 eurotik gorakoa bada, kriptoahtibo guztiak saldu beharko dituzu. Aldiz, balorazio hori 5 eurotik beherakoa bada, ezingo dituzu saldu.
- Kriptoahtiboen urteko erosketen zenbateko metatua gehienez 20.000 €-ra mugatuta egongo da.
- Banka Pribatuaren segmentuko bezeroa bazara, urteko erosketen zenbateko metatua 100.000 €-raino mugatuta egongo da.
- Metatutako zenbatekoak kalkulatzeko, une bakoitzean urtean egindako erosketen eta salmenten zenbatekoen arteko aldea hartuko da kontuan, kriptoahtiboen errebalorizazioak edo merkatuko balio-galerak kontuan hartu gabe.
- Urtero, zenbateko metatu horiek hasierako zenbatekora itzuliko dira, ordura arte kontsumitutako muga edozein dela ere.
- Edozein unetan eskatu ahal izango dute muga operatiboa handitzea, kanalen bidez, 50.000 €-raino. Banka Pribatuko segmentuaren bezeroa bazara, edozein unetan eskatu ahal izango duzu muga operatiboa handitzea, Kanalen bidez, 250.000 €-raino.

Bestelako informazio garrantzitsua

Norentzat dira Kriptoaktiboen Zerbitzuak?

Kriptoaktiboen Zerbitzuak Espainiako Erresuman egoitza fiskala duten adin nagusiko pertsona fisikoei ematen zaizkie.

Nola emango dugu kriptoaktiboetako inbertsioari buruzko informazioa?

Hiru hilean behin, zure izenean erregistratutako kriptoaktiboak, haien saldoa eta balioa identifikatzeko posizio-egoera bat emango dizugu.

Aurrekoaz gain, Bankuak une bakoitzean gaitutako kanalak erabil ditzakezu edozein unetan kriptoaktiboetan egindako inbertsioei buruzko informazioa eskuratzeko eta posizioen egoerari buruzko informazioa eskatzeko.

Erantzukizuna:

Gauzatze Zerbitzua emateari dagokionez, BBVAk hirugarren hornitzaile independenteengandik jasotzen ditu bezeroek bistaratzen dituzten kriptoaktiboak erosteko eta saltzeko prezioak. BBVAk ez du parte hartzen prezio horiek egiteko prozesuan, eta ez ditu baliozkotzen. Bezeroen eskura jartzen ditu, informazio gisa, Bankuak une bakoitzean gaitutako kanalen bidez. Beraz, BBVAk ez du bere gain hartzen argitaratutako prezioak eta azkenean erosketa- edo salmenta-agindu bat gauza daitezkeen prezioak desberdinak izan daitezkeenik.

Halaber, BBVAk, jakinarazpen bat jasotzen duenean, ez du erantzukizunik izango enbargatzeko jarraibideak edo enbargoa egin duen organoaren enbargo-instrukzio judizial edo administratiboak betetzean eragin dakizkiokeen kalte-galerengatik.

Atzera egitea:

Dokumentu honetan zerrendatutako Kriptoaktiboen Zerbitzuen xede den kontratua urrutitik formalizatuko da. Hori dela eta, ezin izango du atzera egin finantza-zerbitzuak urrutitik merkaturatzeari buruzko araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz –araudi hori Kriptoaktiboen Zerbitzuei aplikatzen zaie–, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 31ko 2023/1114 (EB) Erregelamenduak, kriptoaktiboen merkatuei buruzkoak, berariaz igorrita; izan ere, eskubide hori baliatzeko aukera dago kriptoaktiboen gainean egindako erosketetan.

I. ERANSKINA

Arriskuei buruzko informazioa

KRIPTOAKTIBOETAN EGINDAKO INBERTSIOA OSO ESPEKULATIBOA ETA HEGAZKORRA DA, ALDAKETA ESANGURATSUAK IZAN DITZAKE, EZ DA EGOKIA MOTA GUZTIETAKO INBERTITZAILEENTZAT, ETA INBERTSIOAREN GUZTIZKO GALERA EKAR DEZAKE.

JARRI ARRETA HONAKO INFORMAZIO HONETAN –EGIN NAHI DUZUN INBERTSIOAREN GAINENKO ARRISKUEI BURUZKOA– ETA GALDETU ZURE ZALANTZAK EDOZEIN ERAGIKETA HASI AURRETIK.



ARRISKUEI BURUZKO INFORMAZIOA

1.1 Arrisku handiko inbertsioa: kriptoaktiboetan egindako inbertsioa oso espekulatiboa da, hegakortasun handia du eta ez du banku zentral batek edo beste agintari publiko batzuek babesten, inbertsioaren erabateko galera ekar dezakeelarik. Beraz, baliteke ondare pertsonalaren neurriz kanpoko esposizioa egokia ez izatea. Tresna konplexuak dira, eta baliteke aurreztaile txikientzat egokiak ez izatea. Haien prezioak espekulazio-osagai handia du, eta inbertsioa erabat galtzea ere eragin dezake.

1.2 Bezerao babesteko mekanismoen falta: kriptoaktiboetako inbertsioak ez daude estalita bezerao babesteko mekanismoen bidez, hala nola Gordailuak Bermatzeko Funtsaren edo Inbertsioak Bermatzeko Funtsaren bidez.

1.3 Prezioen eraketa: kriptoaktiboen prezioak manipulazioa galaraziko duten mekanismo eraginkorrik ezean era daitezke. Batzuetan, haiek babesteko informazio publikorik gabe ere osa daitezke. Kriptoaktiboek bat-bateko fluktuazio esanguratsuak izan ditzakete prezioetan, gorantz eta beherantz.

1.4 Likidezia falta: kriptoaktiboak inbertsio bat desegin ahal izateko beharrezkoa den likideziaz gabe ikus daitezke, galera esanguratsurik izan gabe, batez ere, inbertitzaileen arteko zirkulazioa, bai txikizkakoena, bai profesionalena, oso mugatua izan daitekeelako.

1.5 Zaintzailearen kaudimengabezia-arriskua edo banku-suntsiarazpenaren arriskua: bezeroen kriptoahtiboak, aplikatzekoa den araudiaren arabera, zaintzailearen beraren kriptoahtiboetatik behar bezala bereizita egon arren, gerta daiteke haren kaudimengabeziak inbertitzailea kriptoahtiboen titular gisa ez aitortzea.

1.6 Ez dira ordaintzeko bideak: legearen ikuspegitik, kriptoahtiboak ez dira ordaintzeta-bitartekotzat hartzen; beraz, ez da beharrezkoa halakotzat hartzea zorrak edo beste betebeharrak batzuk ordaintzeko.

1.7 Lapurreta-, maula- edo galera-arriskuak: gako pribatuak galdu edo lapurtzeak kriptoahtiboak galtzea ekar dezake, haiek berreskuratzeko aukerarik gabe.

1.8 Teknologiaaren berezko arriskuak: erregistro banatuko teknologia heldze-fase goiztiarrean daude oraindik, eta sare horietako asko duela gutxi sortu dira; beraz, baliteke behar bezala frogatuta ez egotea eta funtzionamenduan eta segurtasunean akats nabarmenak egotea. Erregistro banatuko teknologietan oinarritutako sareetako transakzioen erregistroak adostasun-protokoloen bidez funtzionatzen du. Protokolo horiek erregistro hori aldatzen saiatzen diren erasoak jasan ditzakete, eta, erasoek arrakasta izanez gero, ez dago transakzio horiek eta gako publikoei dagozkien saldoak babesten dituen erregistro alternatiborik. Kriptoahtibo guztiak gal daitezke.

Kriptoahtiboek eman ditzaketen anonimotasun-eraztasunek helburu bihurtzen dituzte zibergaizkileentzat; izan ere, kredentzialak edo gako pribatuak lapurtuz gero, kriptoahtiboak berreskuratzeta zailtzen edo eragozten duten helbideetara transferi ditzakete.

OSO GARRANTZITSUA. Ezinbestekoa da kriptoahtiboetan inbertitu aurretik, lotutako arrisku eta balio guztiak kontuan hartzea, produktu hau eta zerbitzu desberdinak ulertzeko informazio nahikoa baduzu.